




PREMIOS ANESVAD SARIAK

IX. EDICIÓN EDIZIOA

HEALTH

EUSKARA

anesvad
FUNDAZIOA



Edukia

Aurkezpena	3
Deialdiaren oinarri orokorrak	4
Helburua	4
Kategoriak	4
Bizitza profesional oso baten saria	4
Garapenerako lankidetzan ibilbiderik onena egin duen erakundearen saria.....	4
Gizarte-eraldaketarako hezkuntzako proiektu edo ekimen onenaren saria.....	5
Zuzkidura	6
Hautagaitzen aurkezpena	6
Hautagaitzek aurkeztu beharko duten dokumentazioa	7
Ebazpena	8
Kontuan hartu beharreko beste betekizun batzuk	8
Jabetza intelektuala, konfidentzialtasuna eta datuen babesa	10
Zalantzak, kontsultak eta iradokizunak	10

Aurkezpena

Anesvad Fundazioak 50 urtetik gora daramatza elkertasunez lanean, osasunaren eremua-
ren barruan betiere. 2015. urtean erakundeko Patronatuak **Elkartasunaren eta Lankidetzaren
Sariak** sortzea onartu zuen, Garapenerako Lankidetzaren instituzio eta erakunde espainiarrek
osasunaren eremuan, Saharaz hegoaldeko Afrikan eta bereziki Ahaztutako Gaixotasun Tropika-
len alorretan egiten duten lana saritzeko helburuarekin. Ekimenak indarra hartu du pixkanaka,
eta dagoeneko ekitaldi garrantzitsu bihurtu da erakundearen bizitzan. Anesvad Sarien VIII edizio
egin dira jada, eta kontinente horretan kalteberatasun-egoeran dauden herritarren Osasunerako
Eskubidea defendatzen eta sustatzen duten 40 instituzio eta erakundek jaso dute saria.

2024 honetan, Anesvad Sarien IX. edizioa egingo dugu, Saharaz hegoaldeko Afrikan kalteberata-
sun-egoeran bizi diren herritarren Osasunerako Eskubidearen defentsan eta sustapenean egiten
duten lana bultzatzen eta nabarmentzen jarraitzeko helburuarekin.

Sari hauetarako hautagai izateko, hautagaitzaren izen-ematea egingo da dagokion kategorian
webgune bidez, eta sari horretarako oinarri orokorretan adierazitako dokumentazioa erantsiko da
atal bakoitzean.

Honako hauek izango dira nazioarteko esparruak eta haien zuzkidura ekonomikoa:

- **Bizitza profesional oso bat. 10.000 euro.**
- **Garapenerako lankidetzan ibilbiderik onena egin duen erakundea. 30.000 euro.**
- **Gizarte-eraldaketarako hezkuntzako proiektu edo ekimenik onena. 20.000 euro.**

Deialdiaren oinarri orokorrak

Helburua

Anesvad Sariak aitortzen dute Saharaz hegoaldeko Afrikan kalteberatasun-egoeran dauden herritarren Osasunerako Eskubidea defendatzen eta sustatzen duten pertsona eta erakundeen lana, Ahaztutako Gaixotasun Tropikaletan arreta berezia jarritz.

Kategoriak

Bizitza profesional oso baten saria

Pertsona bat aitortzea Saharaz hegoaldeko Afrikan Elkartasun eta Lankidetzaren alorrean egindako ibilbide profesionalagatik, Osasunerako Eskubidearen aldeko sustapenean eta defentsan eta/edo Ahaztutako Gaixotasun Tropikalen aurkako borrokan.

Hautagaiak (pertsona fisikoak) edo hirugarrenek (pertsona fisiko edo juridikoak) izango dute aurkezteko aukera, azken kasu horretan betiere, hautagaiaren baimena aurkezten badute.

Saritutako pertsona hautatzeko honako irizpide hauek baloratuko dira:

- Jarduera profesionalean Osasunerako Eskubidearekin erakutsitako konpromisoa, eta, jarduera horren ondorioz, Saharaz hegoaldeko gizarteentzat eratorritako onurak.
- Egindako lanaren edo proiektuen garrantzia.
- Pertsonak sentsibilizazioaren alorrean egindako lanaren norainokoa, tokiko, eta, hala bada-gokio, nazioarteko testuinguruan.

Garapenerako lankidetzan ibilbiderik onena egin duen erakundearen saria

Garapenerako Lankidetzan, Osasunerako Eskubidearen sustapenean eta defentsan eta/edo Saharaz hegoaldeko Afrikan Ahaztutako Gaixotasun Tropikalen aurkako borrokan zeregin nabarmena egiten duen entitate edo erakunde baten merezimenduak aitortzen ditu.

Irabazi-asmorik gabeko erakunde eta instituzioek (GGKEak; Fundazioak; elkarteak; unibertsitateak; GGKEen koordinakunde autonomikoak; etab.) izango dute aurkezteko aukera.

Legez erregistratutako erakundeak izan beharko dute, gutxienez 5 urteko antzintasuna dutenak.

Saritutako instituzioa hautatzeko honako irizpide hauek baloratuko dira:

- Benetan lortutako emaitzak.
- Egindako lanaren edo proiektuen garrantzia.
- Beste pertsona edo instituzioekiko sinergiak, Anesvaden esku-hartzeekiko bereziki.
- Saharaz hegoaldeko herrialdeetako politika publikoekin lerrokatutako helburuak dituzten erakundeak.
- Saharaz hegoaldeko osasun-sistema publikoak indartzen laguntzen duten erakundeak.
- Erakundeak egindako lanaren berrikuntza-maila.
- Eragin biderkatzailea, hau da, erakundeak garatutako ekintzak antzeko beste egoera batzuetara zabaltzeko erraztasuna.
- Eskubideen ikuspegia eta toki-global ikuspegia proposamenaren ezaugarri nagusiak izan daitezela.
- Begirada etnozentriko eta antropozentrikoak gainditu, eta askotariko subjektu eta agenteak inplikatu daitezela.

Gizarte-eraldaketarako hezkuntzako proiektu edo ekimen onenaren sarial

Entitate edo erakunde batek, Saharaz hegoaldeko Afrikan osasunari eta/edo Ahaztutako Gaixotasun Tropikalen aurkako borrokari eragiten dioten baldintzatzaile sozialei –generoa, ingurumen-jasangarritasuna, kulturartekotasuna eta/edo dibertsitate funtzionala– ikuspegi kritiko batetik helduz, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren alorrean egindako proiektu edo ekimen garrantzitsu bat saritzen du.

Irabazi-asmorik gabeko erakunde eta instituzioek (GGKEak; Fundazioak; elkarteak; unibertsitateak; ikastetxeak; GGKEen koordinakunde autonomikoak; etab.) izango dute aurkezteko aukera.

Legez erregistratutako erakundeak izan beharko dute, gutxienez 5 urteko antzinatasuna dutenak.

Saritutako instituzioa hautatzeko honako irizpide hauek baloratuko dira:

- Benetan lortutako emaitzak.
- Egindako lanaren edo proiektuen garrantzia.
- Beste pertsona edo instituzio batzuekiko sinergiak.
- Saharaz hegoaldeko osasun-sistema publikoak indartzen laguntzen duten proiektuak.
- Erakundeak egindako lanaren berrikuntza-maila.
- Eragin biderkatzailea, hau da, erakundeak garatutako ekintzak antzeko beste egoera batzuetara zabaltzeko erraztasuna.

- Eskubideen ikuspegia eta toki-global ikuspegia proposamenaren ezaugarri nagusiak izan daitezela.
- Begirada etnozentriko eta antropozentrikoak gainditu, eta askotariko subjektu eta agenteak inplikatu daitezela.
- Ikuspegi politiko-pedagogiko koherenteak sartu daitezela.
- Ikaskuntza-kultura bat garatu dadila praktikak eraldatzeko, eta ekintzarako prestakuntza, ekintza eraldatzaileak, eta instituzio eta erakunde hezitzaileen rola sendotzeko.

Zuzkidura

10.000 euro **Bizitza profesional oso baten saria** kategorian. Saridunak proposatzen duen erakundeari edo proiektuari emango zaio zenbatekoa, kontuan hartuta betiere, Anesvaden asmoekin bat etorritik, Saharaz hegoaldeko Afrikan Osasunerako Eskubidea sustatzearen eta/edo Ahaztutako Gaixotasun Tropikalen aurka borrokatzearen alorrekoa izan beharko duela.

30.000 euro **Garapenerako lankidetz**a kategorian eta 20.000 euro **Gizarte-eraldaketarako hezkuntza** kategorian. Erakunde irabazleak proposatzen duen proiektu propioari bideratuko zaio zenbatekoa, kasu honetan ere kontuan hartu beharko delarik, Anesvaden asmoekin bat etorritik, Saharaz hegoaldeko Afrikan Osasunerako Eskubidea sustatzearen eta/edo Ahaztutako Gaixotasun Tropikalen aurka borrokatzearen alorrekoa izan beharko duela.

Gainera, zeremonian, "Moringa" izeneko eskultura bat emango zaio saridun bakoitzari.

Hautagaitzen aurkezpena

Sari-deialdi honetara aurkeztu nahi diren pertsona eta instituzioek hautagaitzaren izen-ematea egin beharko dute beren intereseko kategorian webgunearen bidez, dagozkion formularioa eta eranskina betez www.anesvad.org webgunean eskuragarri dagoen estekan. Eskaera espainolez, ingelesez edo frantsesez egiteko aukera izango dute.

Interesdunek beren izenean aurkeztu ahalko dituzte hautagaitzak, edo beste pertsona batzuek haien izenean, edo instituzioek ere bai. Aurretiko izen-ematearen aldia 2024ko urtarrilaren 25an irekiko da eta 2024ko otsailaren 25an itxiko da, biak barne (Espainiako 23:59ra arte, GMT+1).

Hautagaitzek aurkeztu beharko duten dokumentazioa

Saharaz hegoaldeko Afrikan Osasunerako Eskubidearen aldeko sustapen eta defentsari eta/edo Ahaztutako Gaixotasun Tropikalen aurkako borrokari eskainitako bizitza profesional oso bati emandako saria.

- Hautagaiaren *curriculum vitae*-a (gehienez, 10 orri).
- Bere hautagaitza arrazoitzen duen gutuna.
- Hautagaitzaren eranskin espezifikoa, eranskinean egindako jarduera profesionalari loturik Saharaz hegoaldeko Afrikan garatutako zeregina eta kausa solidarioei eman dien babesa bilduko direlarik.
- Jasotako sariaren zenbateko ekonomikoaren onuradun izango den Saharaz hegoaldeko Afrikako erakundea edo proiektua.

Garapenerako Lankidetzan, Saharaz hegoaldeko Afrikan Osasunerako Eskubidearen sustapenean eta defentsan eta/edo Ahaztutako Gaixotasun Tropikalen aurkako borrokan ibilbide-rik onena egin duen erakundearen saria.

- Erakundearen eraketa-urtearen erregistroa.
- Hautagaitzaren eranskin espezifikoa, eranskinean honako hauek bilduko direlarik: erakundeak garatutako jarduketan berezitasuna eta haien berrikuntza-maila; sinergiak beste pertsona edo erakunde batzuekin eta erakundeak garatutako ekintzak beste antzeko egoera batzuetara zabaltzeko erraztasuna, besteak beste.
- Jasotako sariaren zenbateko ekonomikoaren onuradun izango den Saharaz hegoaldeko Afrikako proiektua.

Saharaz hegoaldeko Afrikan osasunari eta/edo Ahaztutako Gaixotasun Tropikalen aurkako borrokari eragiten dioten baldintzatzaile sozialei —generoa, ingurumen-jasangarritasuna, kulturartekotasuna eta/edo dibertsitate funtzionala— ikuspegi kritiko batetik helduz, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren alorrean egindako proiektu edo ekimen onenaren saria.

- Erakundearen eraketa-urtearen erregistroa.
- Hautagaitzaren eranskin espezifikoa, eranskinean honako hauek bilduko direlarik: erakundeak garatutako jarduketan berezitasuna eta haien berrikuntza-maila; sinergiak beste pertsona edo erakunde batzuekin eta erakundeak garatutako ekintzak beste antzeko egoera batzuetara zabaltzeko erraztasuna, besteak beste.
- Jasotako sariaren zenbateko ekonomikoaren onuradun izango den Saharaz hegoaldeko Afrikako proiektua.

Ebazpena

Garapenerako Hezkuntzaren munduko, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren eta Osasunerako Eskubidearen aldeko alorretako, Saharaz hegoaldeko Afrikako, komunikabideetako eta gizarte-eragileetako pertsona ospetsuek osatutako epaimahaia eta deialdiaren epaia 2024ko maiatzaren 25a baino lehen jakinaraziko dira, www.anesvad.org webgunean. Pertsona eta instituzio saridunei idatzizko jakinarazpena bidaliko zaie, sarien zabalkunderako ekimenetan parte har dezaten egokitzat jotzen diren komunikabideen bitartez. Edizio honetan saririk jaso ez duten ekimen guztiei ere idatzizko jakinarazpen bat bidaliko zaie.

Saria onartzeak dohaintza-akordioa sinatzea dakar berekin.

Kontuan hartu beharreko beste betekizun batzuk

1. Saria emango da Espainian indarrean dagoen zerga-araudiari jarraikiz.
2. Anesvad Fundazioak izendatutako epaimahai batek bere gain hartuko du aurretiko izen-emaiteak eta hautagaitzak ebaluatzeko eta sari bakoitza emateko erabakiak hartzeko ardura. Epaimahaiak honako gaitasun hauek izango ditu:
 - Aurkeztutako hautagaitzen inguruko informazioa kontrastatzeko komenigarritzat jotzen dituen ekimen guztiak hartzea.
 - Ohiz kanpoko eran, epaimahaiak dokumentazioa aurkezteko epea luzatzeko aukera izango du hautagaitzak formalizatzeko, betiere erabaki hori sarien epaia baino lehen hartzen bada. Luzatze hori Anesvad Fundazioaren webgunearen era sare sozialetan dauzkan profilen bitartez jakinaraziko litzateke.
 - Sarietako bat eman gabe uztea, baldin eta, aurkeztutako aurretiko izen-emate eta/edo hautagaitzek, deialdian kategoria bakoitzerako ezarritako gutxieneko betekizunak betetzen ez badituzte.
 - Saria ex aequo ematea hautagaitza bati baino gehiagori, horretara eraman duten arrazoi bereziak espresuki adierazita. Kasu horretan, Sariaren zuzkidura ekonomikoa saritutako hautagaitzen artean banatuko da erdibana.
3. Epaimahaiaren erabakiak apelaezinak izango dira. Sari bakoitzaren epaia, komunikabideen eta Anesvad Fundazioaren webgunearen bitartez jakinaraziko da.
4. Sariak ekitaldi publiko batean emango dira, eta behar bezala jakinaraziko da hori noiz eta non egingo den.

Saria jasotzeko, finalista diren pertsona edo erakundeek sariak banatzeko ekitaldira bertaratu beharko dute, pertsonalki edo behar bezala ordezkaturatuta, eta horrez gain:

- Material grafikoa ematea (erreprodukzio-eskubideekin), epaia jakinarazteko eta ekitaldia diseinatzeke.

- Anesvad Fundazioak zehaztutako komunikabideekin programatutako elkarrizketak egitea.
5. Betekizun horiek ez betetzea saria kentzeko arrazoi izan daiteke, Anesvad Fundazioaren irizpideari jarraikiz. Kasu horretan, Epaimahaiak baloratutako hurrengo hautagaitzari emango zaio saria.

Kapitalen Zuriketa eta Terrorismoaren Finantzaketa Prebenitzeko Espainiako Legeak (apirilaren 18ko 10/2010 Legearen 2. artikulua) eta haren Erregelamenduak (304/2014 ED) ezarritako betekizunak betetzeko, honako dokumentazio gehigarri hauek eskatuko dira:

- Pertsonaren, erakundearen edo haien ordezkarien nortasun-agiria/pasaportearen indarrean, eta identifikazio fiskaleko zenbakia (dohaintza-ziurtagiriaren sinatzailearekin bat etorri behar du).
 - Eratze-estatutuak eta erregistro publikoa saritutako erakundeek egoitza duten herrialdean.
 - Dohaintza-ziurtagiria sinatzen duten erakunde saridunen ordezkariaren ordezkartza-ahalordearen kopia.
 - Banku-entitatearen ziurtagiria, saria ordaintzeko hautatutako kontuaren titularra saritutako pertsona edo erakundea dela egiaztatzen duena.
6. Deialdi honetara bertaratuz, pertsona eta erakunde parte-hartzaileek oinarri hauetan ezarritako arauak onartzen dituztela ulertzen da.

Jabetza intelektual, konfidentzialtasuna eta datuen babesa

Pertsona eta erakunde hautagaiak bermatzen dute aurkeztutako proiektuen jabetza intelektual eta industrialeko eskubide guztien titularrak direla, baita informazioaren titularrak ere, aurkeztutako dokumentazioan sartutako irudiak barne.

Oinarri hauek onartzeak berekin dakar Anesvad Fundazioari lagatzea horien edukia erreproduzitu, banatu, eraldatu, itzuli eta jendaurrean komunikatzeko eskubideak entrega-zeremonian, baita Sarietarako lotutako sustapen-jarduera eta -ekintzetan ere (batzuk aipatzearen eta mugatzeko asmorik gabe, papera, audioa, ikus-entzunezkoak, elektronikoak edo Anesvad Fundazioak babestutako webgune eta/edo sare sozialetan txertatzea, geografia- eta denbora-mugarik gabe), eta erabilera horrek ez du inolako konpentsazio ekonomikorik jasotzeko eskubiderik emango. Erakunde irabazleek onartzen dute Anesvad Fundazioak, emandako informazioa zabaltzeko eskubidea duela, baina ez betebeharra.

Datu pertsonalak babesteari buruzko indarreko araudia betez jakinarazten da, emandako datu pertsonalak honako xede hauetarako tratatuko direla: hautagaitzaren kudeaketa eta ebazpena; sari-banaketaren ekitaldirako bertaratzeko kudeaketa; eta, Anesvad Fundazioari, ezarritako harremanean interesgarri izan daitekeen informazioa bidaltzea. Hautagaitzaren web formularioa eta lotutako informazioa posta elektronikoz edo arruntez bidaltzeak esan nahi du goian deskribatutako datu-tratamendua baimentzen dela.

Horrez gain, jakinarazten da edozein unetan balia daitezkeela Datuak Babesteari buruzko indarreko araudian ezarritako eskubideak. Gainera, jakinarazten dizugu rgpd@anesvad.org helbide elektronikoen bitartez horri buruzko kontsultak egin ditzakezula.

Zalantzak, kontsultak eta iradokizunak

Anesvad Sarietarako hautagaitzak aurkeztearekin edo formulazioa bidaltzeko prozesuarekin zerikusia duen edozein zalantzari, gorabehera teknikori edo kontsultari premios@anesvad.org helbidean eskainiko zaio arreta. Arazoa zein den adierazi behar da, argitasunez eta zehazki. Anesvadek ahalik eta lasterren erantzungo du.

1. Eranskina. Bizitza profesional oso baten saria

Pertsona bat aitortzea Saharaz hegoaldeko Afrikan Elkartasun eta Lankidetzaren alorrean egindako ibilbide profesionalagatik, Osasunerako Eskubidearen aldeko sustapenean eta defentsan eta/edo Ahaztutako Gaixotasun Tropikalen aurkako borrokan.

PERTSONAREN IZENA:

1. Hautagaiaren esperientzia, ibilbidea eta espezializazioa deialdiko helburuei dagokienez (puntuazioa: 1etik 3ra bitarteko eskala, 1 eskasa, 2 bitartekoa eta 3 bikaina izanik)

Saharaz hegoaldeko Afrikan pertsonak Osasunerako Eskubidea sustatzen, eta, hala bada-gokio, Ahaztutako Gaixotasun Tropikalen aurka borrokatzen laguntzeko egin dituen edo egiten dituen jarduera edo kolaborazioetan oinarrituta.

2. Pertsonaren eragina herrialdearen erronka eta arazo nagusietan, datu ofizialetan oinarrituta (puntuazioa: 1etik 3ra bitarteko eskala, 1 eskasa, 2 bitartekoa eta 3 bikaina izanik)

Aldez aurretik jasotako aitortzetan eta/edo ordezkaritza instituzional edo politikoaren alorrean betetako karguetan oinarrituta.

3. Aktore anitzeko eta/edo maila anitzeko lankidetzak eta aliantza berritzaileak beste erakunde batzuekin (puntuazioa: 1etik 3ra bitarteko eskala, 1 eskasa, 2 bitartekoa eta 3 bikaina izanik)

Osasunaren eta/edo Ahaztutako Gaixotasun Tropikalen arretaren alorretako garrantzizko sare eta/edo taldeetako kidesunean oinarrituta.

4. Sariaren onuraduna izango den erakundea (puntu estra 1 Saharaz hegoaldeko Afrikan Ahaztutako Gaixotasun Tropikalen arretari heltzen dion erakunde bat bada)

AZKEN PUNTUAZIOA:

2. Eranskina. Garapenerako lankidetzan ibilbiderik onena egin duen erakundearen saria

ERAKUNDEAREN IZENA:

1. **Hautagai den erakundearen esperientzia, ibilbidea eta espezializazioa deialdiko helburuei dagokienez (puntuazioa: 1etik 3ra bitarteko eskala, 1 eskasa, 2 bitartekoa eta 3 bikaina izanik)**

Saharaz hegoaldeko Afrikan erakundeak Osasunerako Eskubidea sustatzen, eta, hala badagokio, Ahaztutako Gaixotasun Tropikalen aurka borrokatzen laguntzeko egin dituen eta egiten dituen jarduera edo kolaborazioetan oinarrituta.

2. **Erakundearen eragina herrialdearen erronka eta arazo nagusietan, datu ofizialetan oinarrituta (puntuazioa: 1etik 3ra bitarteko eskala, 1 eskasa, 2 bitartekoa eta 3 bikaina izanik)**

Aldez aurretik jasotako aitortzetan eta/edo Osasuneko organo publikoekin egindako aholkularitza edo kolaborazioetan oinarrituta.

3. **Aktore anitzeko eta/edo maila anitzeko lankidetzak eta aliantza berritzaileak beste erakunde batzuekin (puntuazioa: 1etik 3ra bitarteko eskala, 1 eskasa, 2 bitartekoa eta 3 bikaina izanik)**

Osasunaren eta/edo Ahaztutako Gaixotasun Tropikalen arretaren alorretako garrantzizko sare eta/edo taldeetako kidetasunean oinarrituta.

4. **Eskubideen ikuspegia eta toki-global ikuspegia (puntuazioa: 1etik 3ra bitarteko eskala, 1 eskasa, 2 bitartekoa eta 3 bikaina izanik)**

Eskubideen ikuspegia eta toki-global ikuspegia proposamenaren ardatz-ezaugarriak izatea oinarri gisa hartuta.

5. **Begirada etnozentriko eta antropozentrikoak gainditzea (puntuazioa: 1etik 3ra bitarteko eskala, 1 eskasa, 2 bitartekoa eta 3 bikaina izanik)**

Begirada etnozentriko eta antropozentrikoak gainditzea, eta askotariko subjektu eta agenteak inplikatzeko oinarri gisa hartuta.

6. **Sariaren onuraduna izango den proiektu propioa (puntu estra 1 Saharaz hegoaldeko Afrikan Ahaztutako Gaixotasun Tropikalen arretari heltzen dion erakunde bat bada)**

AZKEN PUNTUAZIOA:

3. Eranskina. Gizarte-eraldaketarako hezkuntzako proiektu edo ekimen onenaren saria

ERAKUNDEAREN IZENA:

- 1. Hautagai den erakundearen esperientzia, ibilbidea eta espezializazioa deialdiko helburuei dagokienez (puntuazioa: 1etik 3ra bitarteko eskala, 1 eskasa, 2 bitartekoa eta 3 bikaina izanik)**

Ipar globaleko herrialdeetako herritarrekiko sentsibilizazio- eta hezkuntza-ekintzak garatuz erakundeak Osasunerako Eskubidea sustatzen, eta, hala badagokio, Ahaztutako Gaixotasun Tropikalen aurka borrokatzen laguntzeko egin dituen edo egiten dituen jarduera edo kolaborazioetan oinarrituta.

- 2. Erakundearen eragina herrialdearen erronka eta arazo nagusietan, datu ofizialetan oinarrituta (puntuazioa: 1etik 3ra bitarteko eskala, 1 eskasa, 2 bitartekoa eta 3 bikaina izanik)**

Aldez aurretik jasotako aitortzetan eta/edo Osasuneko organo publikoekin egindako aholkularitza edo kolaborazioetan oinarrituta.

- 3. Aktore anitzeko eta/edo maila anitzeko lankidetzak eta aliantza berritzaileak beste erakunde batzuekin (puntuazioa: 1etik 3ra bitarteko eskala, 1 eskasa, 2 bitartekoa eta 3 bikaina izanik)**

Ipar globaleko herritarrekiko sentsibilizazioaren, Osasunaren eta/edo Ahaztutako Gaixotasun Tropikalen alorretako garrantzizko sare eta/edo taldeetako kidetasunean oinarrituta.

- 4. Eskubideen ikuspegia eta toki-global ikuspegia (puntuazioa: 1etik 3ra bitarteko eskala, 1 eskasa, 2 bitartekoa eta 3 bikaina izanik)**

Eskubideen ikuspegia eta toki-global ikuspegia proposamenaren ardatz-ezaugarriak izatea oinarri gisa hartuta.

- 5. Begirada etnozentriko eta antropozentrikoak gainditzea (puntuazioa: 1etik 3ra bitarteko eskala, 1 eskasa, 2 bitartekoa eta 3 bikaina izanik)**

Begirada etnozentriko eta antropozentrikoak gainditzea, eta askotariko subjektu eta agenteak inplikatzeko oinarri gisa hartuta.

- 6. Ikuspegi politiko-pedagogikoa (puntuazioa: 1etik 3ra bitarteko eskala, 1 eskasa, 2 bitartekoa eta 3 bikaina izanik)**

Ikuspegi politiko-pedagogiko koherenteak sartzeko oinarri gisa hartuta.

7. Ikaskuntza-kultura (puntuazioa: 1etik 3ra bitarteko eskala, 1 eskasa, 2 bitartekoa eta 3 bikaina izanik)

Praktikak eraldatzeko ikaskuntza-kultura bat garatzea, eta ekintzarako prestakuntza, ekintza eraldatzaileak, eta instituzio eta erakunde hezitzaileen rola sendotzea oinarri gisa hartuta.

8. Sariaren onuraduna izango den proiektu propioa (puntu estra 1 Saharaz hegoaldeko Afrikan Ahaztutako Gaixotasun Tropikalen gaineko sentsibilizazioari heltzen dion proiektu bat bada)

AZKEN PUNTUAZIOA:

anesvad
FUNDAZIOA

IX. EDICIÓN EDIZIOA